



EHIZA EGUN BAT

Ekainen bizi ziren gizakiak ehiztariak eta biltzaileak ziren, bizirauteko beharrezkoak zituzten elikagaiak lortzeko ehizatu, arrantzatu eta basoko fruitu nahiz belarrak bildu behar zituzten.

Horretarako tresna desberdinak erabiltzen ikasi zuten. Zuek ere horrelakoak esku artean izango dituzue, bakoitzaren izena eta erabilera ondo ezagutzea komeni da. **Horretarako hurrengo taula bete ezazue:**

IZENA	DEFINIZIOA	IRUDIA
Azagaia		
Suharria		
Arpoia		
Arkua		
Gezia		
Bultzagailua		





DEFINIZIOAK

Mutur batean punta zorrotza eta bestean lumak izan ohi dituen jaurtitzeko arma. Lumei esker mantentzen du jaurtitzerakoan emandako norabidea.

Egur eta hezurrez osatutako tresna. Mutur batean, beste jaurtigai batekin kateatzeko ezinbestekoa den hezurrezko kakoa du. Horrela, jaurtigaia hurrunago eta indartsuago irits daiteke.

Historiaurrean erabiltzen hasi zen arma, Erdi Aroko ejertzitoen osagai garrantzitsua eta gaur egunean kirol moduan erabil daitekeena. Joko olinpikoetan ere ikus dezakegu.

Mutur horzkatutako hezurrezko tresna. Gaur egun ere erabiltzen da, baina oraingoak burnizkoak dira.

Silizea, ura eta alumina osagai gisa dituen kuartzo mota. Paleolito garaiko tresna asko egiteko erabilitakoa, baita sua lortzeko ere.

Bultzagailuarekin batera jaurtiz gero, askoz hurrunago iritsiko den lantza itxurako arma.

Tresna horiekin Ekaingo gizakiek animalia desberdinak ehizatu zituzten.

Hurrengo taulan Ekainen topatu eta Madalen aroari dagozkion hezur kopurua ikus dezakezue.


Ekain ez da Euskal Herrian Historiaurreko aztarnak dituen kobazulo bakarra. Bizkaian dagoen Santimamiñe ere Madalen aroan bizileku gisa erabili zuten eta han topatutako animalien datuak ere baditugu.


Horiei jarraituta grafika bat egin ezazue:

Oreina	697
Basahuntza	241
Bisontea	12
Zaldia	12
Otsoa	8
Sarrio	17
Orkatza	11
Izokina	9
Hartza	10
Elur-oreina	4

Hauekin, beste grafika bat osa ezazue:

Oreina	1.138
Basahuntza	150
Bisontea	67
Zaldia	213
Otsoa	8
Sarrio	80
Orkatza	39
Izokina	9
Hartza	2
Elur-oreina	5
Basurdea	89






Agian ez dituzu aipatutako animalia guztiak ezagutuko. Ehiztariak oso ondo ezagutu behar ditu inguruko animaliak. Hemen dituzu lan horretan lagunduko dizuten irudi batzuk.



Zaldia




Sarrioa



Basahuntza



Leizezuloetako hartza



Hartz arrea



Elur-oreina



Oreina



Orkatza



Izokina




Bisontea



Basurdea





Bi grafikoak elkarren ondoan jarri eta konpara itzazue hurrengo galderei erantzun aurretik.

Zein zen gehien ehizatutako animalia Ekainen eta Santimamiñen? _____

Zein da bigarren postuan dagoena kobazulo bakoitzean? _____


Ba al da kobazulo batean ehizatu eta bestean agertzen ez den animaliarik? Zergatik izan daiteke hori? _____


Zein da gutxien ehizatu zutena? _____

Bi kobazulotan agertutako animalien artean desberdintasun handirik atzematen al duzu? _____

Orain artean ehizaren inguruan aritu gara, Ekainen eta baita Santimamiñen ere zein animali eta zein tresnekin ehizatu zituzten ondo dakigu.

Baina bi kobazulo hauek ez ziren Historiaurreko gizakien bizileku hutsak. Gure arbasoak kobazuloko leku sakon eta ilunenetara sartu ziren eta bertan zenbait irudi marraztu zituzten.





Baina, mila galdera izan ditzakegu irudi horien inguruan.



Zer marraztu zuten?

Inguruan zutena, normalean ikusten zuten hori irudikatu al zuten?

Asko ehizatzen zituzten animaliekin apaindu al zuten kobazuloa?

Galdera hauei erantzuteko lehen egin dituzuen bi grafiko horiek beharko ditugu, baita ondorengo orrian dituzuen beste bi horiek ere. Horrela Ekainen eta Santimamiñen zer ehizatu eta zer marraztu zuten jakin dezakegu.

Bi kobazuloetako labar artea konparatu eta honek ehizarekin izan zezakeen erlazioaz jabetzeko, bete ezazue hurrengo taula.



	EKAIN	SANTIMAMIÑE
Gehien marraztutako bi animaliak		
Gehien ehizatutako animalia		
Gutxien marraztutako animaliak		
Asko ehizatu eta gutxi marraztutako animaliak		
Marrazkietan azaltzen ez diren ehizatutako animaliak.		

Orain artean egin duzuen lanaren ondoren, galdera garrantzitsu honi erraz erantzuteko behar adina informazio duzue.

Ekaingo kobazuloan ehizatzen zutena marraztu al zuten? _____

Labar artea (kobazuloetako pinturak) ehiza ugaria lortzeko eginak direla uste al duzu? _____

